

I. ATALA
ERRAMUN BAXOKEN
BIOGRAFIA

ERRAMUN BAXOK – INDARTE
Biografia eta 1946. urtean idatziriko gutuna

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos

IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea

Helbide elektronikoa: jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

*"Erakunde ofizialak ahalgabetuko dira,
beren inguruan ez badaukate herri mugimendu indartsu bat"*
E. Baxok, Bat, 1995, 16. zk, 103. orr.

BIOGRAFIA

1928 – Erramun 1928ko abenduaren 26an sortzen da Suhuskunen (Nafarroa Beherea), Etxemendigaraia etxean. Euskara zen haren haurtzaroko hizkuntza, bai familian, bai herrian. Sei urtetan frantses eskolan sartu zen. Halere, irakaslea euskalduna baitzen, euskal kantu batzu ikasten zituzten. Elizan, aldiz, predikua eta katixima euskaraz egiten ziren.

1940 – Lehen hezkuntzako ikasketen agiria (*Certificat d'études primaires élémentaires*) eskuratzen du eta gero, herriko haur asko bezala misio-nest-gai badoa, gerrarengatik Tarnosera (Landak) eta Noaned¹-era (Bre-tainia). Ikus handik orduan Lafitte kalonjeari idatzi zion gutuna non bere euskararen aldeko garra agertzen zen, eta nola, jadanik, euskararen sustengatzeko, hedatzeko tresnak, egiturak sortzea bilatzen zuen.

1946 – 1947 Bigarren hezkuntzako ikasketetak bukatzen ditu Letretako bi batxilergoak (*Baccalauréat de Lettres*) eskuratuz Bordelen.

1949 – Soldadogo Roazhon² hirian egiten du eta batxiler bakarra baita aitzindari eskola batetara igortzen dute.



1954 – Teologia batxilergoa eskuratzen du Strasbourg-eko unibertsitatean.

1957 – Filosofia ikasketak egin eta, lizentzia eskuratzen du Strasbourg-eko unibertsitatean.

1958 – 1968 Irakaslegoko lehen urratsak egiten ditu atzerrian Boli Kostan (bigarren hezkuntzan letra klasikoak, 1958-1963) eta Niort-eko Frantzia mendebaldean (Irakasle eskolan, *Ecole normale d'institutrices*, 1967-1968).

1967 – Lyon-eko unibertsitatean filosofiako goi diploma (*Diplôme d'Études Supérieures de philosophie*) eskuratzen du (1967/12/18).

1968 – Urte hartan Québecera badoa, erizaina den Renée Samson andrea lagun, filosofia irakasle izateko xedetan. Bigarren hezkuntza maila ondoko ikastetxe edo CEGEP batean hasten da behin filosofiaren eta psikologiaren irakasten eta gero Québeceko unibertsitate berrian Trois-Rivières hirian pedagogia teoriaren irakasten.

1973 – 1974an, Montréal-eko hirian Duplessis-ren ondotik, F.L.Q.-k, Trudeauuk eta René Lévesquek abiatu Québec-eko iraultza lasaia (“révolution tranquille”) aitzinatzen da. Sasoi berean Klaudio Harluxet eta Michèle Mendy senar emazteak beren ofizioak, hots informatikak eta odontologiak Montréal-era erakarri ditu eta adiskide hauen bitartez Erramun Bachoc harremanetan sartzen da Frantziako Tolosan teologia doktoregoa iragan berri duen Piarres Charritton Hazpandar euskalzalearekin. Erramuni esker Piarresek izanen du aterbe doi, bai bere tesiaren argitaratzeko *Le droit des peuples à leur identité*³, bai beretzat irakasle posta baten ardies-teko, bai eta urte bat gora-behera Anna Durruty lagungaiarentzat Elizaren paperak eta ofizioako agiriak eskuratu orduko Euskal Herrirat itzultzeko.

1976 – Québeceko Laval unibertsitatean, “Emmanuel Mounier” eta *Esprit* aldizkariaren nazioarteko politikaz egin tesiari esker filosofian doktore onartua da Erramun Bachoc. Tesi hori argitaratua zen: *La pensée politique d'Emmanuel Mounier. La communauté internationale*⁴.

Pedagogia ikasketak burutzen ditu gainera Irakasle diploma eskuratuz, Québeceko hezkuntza ministeritzak emanik eta, bestalde, ikerketa batzuk soziolinguistikari bururatzen ditu CIRB-en (*Centre International de Recherche sur le Bilinguisme*), William F. Mackey, Jean-Denis Gendron edo Richard Bourhis hizkuntzalariekin ezagutzak eginez geroz.

Irrati emankizunak ere emaiten ditu gainera frantsesez, filosofia gaiei buruz. Haren hiru haurrak Québecen sortuak dira. Hots, de Gaulle jeneralaren “Québec libre”-ko hiritar garbi bilakatua dela Erramun Bachoc doktorea badirudi.

1976-1979ko urteetan ordea Atlantikoaz honaindian historiaren erro-tak itzulia egiten ari du, Franco jeneral zaharra ere hila baita azkenean, 1975ean, Gernikako estatutu berriaren ondotik, lehendakari gazte bat hautatzen dute Euskadiko hiru euskal probintziek, Karlos Garaikoetxea, nafar abokatua, 1938an Iruñean jaioa. Eta ondorioz haize berriak altxa-

**Erramun 1928ko
abenduaren 26an sortzen
da Suhuskunen (Nafarroa
Beherea),
Etxemendigaraia etxean.
Euskara zen haren
haurtzaroko hizkuntza,
bai familian, bai herrian.**

**Ikus handik orduan
Lafitte kalonjeari idatzi
zion gutuna non bere
euskararen aldeko garra
agertzen zen, eta nola,
jadanik, euskararen
sustengatzeko, hedatzeko
tresnak, egiturak sortzea
bilatzen zuen.**

1968 – Urte hartan
Québecera badoa,
erizaina den Renée
Samson andrea lagun,
filosofia irakasle izateko
xedetan.

Québecoko Laval
unibertsitatean,
«Emmanuel Mounier» eta
Esprit aldizkariaren
nazioarteko politikaz
egin tesiari esker
filosofian doktore
onartua da Erramun
Bachoc.

tzen ari direla euskal kulturaren alde Hegoaldeko eta Iparraldeko Euskal Herrietan ere. Horrela sortzen dira Eusko Jaurlaritzaren ondotik, 1980eko hamarraldian, Euskal Herriko Unibertsitatea bere hiru campusekin, bai eta EITB, AEK edo UZEI.

1980 – Erramun Bachoc ohartzen da Kanadako eta Frantziako edo Espainiako ikasturteak elkarrekin uztartzen ahal direla eta horrengatik beretzat eta bere familiarentzat aurkitzen dute Lapurdiko Milafranga herrian Mendigaraia deitzen duten egoitza nagusia.

1982 – Alde batetik Euskal ikaskuntza aurreratuen diploma iragaiten du Bordeleko I. unibertsitatean Erramun Bachoc-ek, eta beste aldetik Joseba Intxaustik UZEI-n hasi dituen hiztegi berezi bat edo bestetan parte hartzen du, hala nola, Hizkuntzalaritza hiztegian edo Filosofia hiztegian, adibidez Emmanuel Mounier edo Existenzialismoari buruzko artikuluan.

1987 – Ezagutzak egin ondoan André Luberriaga Azkaingo auzapez eta Uztaritze kontseilari orokor Euskalzaleen Biltzarraren burulehena-ekin argitaratzen du Baionan, Elkar baitan, bere euskarazko lehen liburua: *Euskal mintzabideak Guide de Conversation Français-Basque* (A. Duhalde, M. Itçaina eta A. Luberriagarekin batera). Ondoko urtean, Kontseilu orokorraren laguntzari esker Erramun Bachoc-ek abiatuko du hamar bat urte ezbaian hartuko dizkion *Euskaraz Bizi* ikus-entzunezko ikasbide berria, sei liburuxkaz eta sei bideokasetez osatua (1987-1996).

1979 – 1993 Tarte berean Euskal Herriko Unibertsitateak atek irekitzen dizkio Erramun Bachoc-i. Hasteko 1979-1982an, Deusturi lotua den Donostiako EUTGen (Estudios Universitarios y Técnicos de Guipuzcoan) Geolinguistikako irakasgai bat badu. HABE erakundearen lehen urtean lan egiten du ere, 1983an. B ereduko eta D ereduko irakaskuntzen arteko konparaketa bat bururatzen du, geroxeago argitaratua izanen den ikerkerta.

Sasoi berean, Iparraldeko kultura erakundeek elkarretartzeko xedea agertzen dutelarik Pizkundera sortzen dute. Batasun berri horren idazkari bezala, Erramun Bachoc-ek Kanadan bildu duen hizkuntza legelagintzari buruzko esperentzia baliatzen ahalko du, botere publikoekin negoziatzeko Baionan, Pauen, Bordelen edo Parisen berdin.

Orduan Parisera badoa Jean Haritschelar, Jakes Abeberri eta Txomin Hegirekin euskal zentro kultural baten ardiesteko xedetan. Pizkundearen ordezkaria da ere “Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoan” (EBLUL). Eta hor Europako hizkuntzen aldeko lege proiektu batzuei buruzko hausnarketetan parte hartzen du, 1992ko “Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna” argitaratu arte.

Pizkundeak oraino “Deiadar” mugimendua abiatzen du euskararen aldeko manifestaldi handiak antolatuz eta negoziaketa eraginkorrak eramanen botere publikoekin, Euskal Herriko Kultur Zentroa Baionan jartzeko gisan, 1987an (*Centre Culturel du Pays basque*).

1990 – Gorabehera batzuen ondotik, 1990ko apirilaren 7an, Uztaritze Euskal Kultur Erakundeak (EKE, *Institut Culturel Basque*) ordezka-

tu beharko du nolazpait Euskal Herriko Kultur Zentroa. EKE-ko lehendakaria behin Ramuntxo Camblong baldin bada ere, horren ondotik 1995ean eta, hamar urte luzez Erramun Bachoc-ek izanen du Uztaritzeko etxearen ardura, nahiz 2005. urtetik hona Mikel Erramouspé-ri utzi dion erakundearen gidaritza.

1995 – 2000 Ikusi behar da euskararen aldeko borrokan EKE zinez estrategikoa izan dela, Ipar Euskal Herrian, bereziki elkarte euskaltzaleen eta botere publikoen bitartekari lanetan. Orduan bai Erramunek eta bere lagunek erakutsiko dute euskal kulturari buruz posible dela lan ederra egitea Iparraldetik beretik, Hegoaldeko Eusko Jaurlaritzarekin adibidez inkesta soziolinguistikoak bideratuz. Eta horri esker, 2006an Euskararen Erakunde Publiko berriak beregain hartuko du euskararen aldeko hizkuntza politika (EEP, *Office Public de la Langue Basque*).

1995ean alabaina Euskaltzaindiko Jagon sailaren Sustapen batzordearekin lanean hasten da Erramun eta 1996an euskaltzain urgazle izendatua da. Aldi berean, Iparraldean sortzen den Garapen Kontseiluko kide gisa, Antolaketa eta Garapen eskemaren idazketan parte hartzen du, bereziki “Hizkuntz Antolaketa” atalean.

2001 – 2008 Hegoaldean ordea, aitzineko urtean, Euskal Soziolinguistika Institutuaren sortzerako hausnarketetan parte hartzen du Erramun Bachoc-ek Quebeceko (*Centre international de recherche en aménagement linguistique*), CIRAL institutua adibidetzat hartuz (2000/08/15). Hausnarketen aurkezpen orokorra eginen du. Eta SEI hori gaurko Soziolinguistika Klusterra bilakatu da.

2001ean izenpetua izan den Ipar Euskal Herriko Hitzarmen bereziko “Hizkuntza politika” deitzen den lehen atalari esker, lehen aldikotz historian, Frantziako botere publikoek euskararen aldeko politika proiektu bat garatzen eta finantzatzen dute.

Hizkuntza Kontseiluko lehendakari izanen da Bachoc. Baina erakunde horrek ez du luzaz iraunen (2001-2003), eta Euskararen Erakunde Publikoak horren segida hartu du, aholku batzorde bat sortuz. Erramun batzorde horren kidea da.

INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAK

Soziolinguistika eta euskararen aldeko proiektu askotan parte hartu du beraz Erramun Bachoc-ek gaitasun ohargarri bat bereganatuz. Hauek dira Erramunek kudeatu edo lagundu dituen inkestak eta erroldak:

Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkestak – Euskararen jarraipena I, II, III eta IV (1991 — 1996 — 2001 — 2006), Eusko Jaurlaritza, Euskal Kultur Erakunde.

Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara, zuzendaria, Iñaki Martínez de Luna eta Kontxesi Berri-Otxoa, Nafarroako

Ikerketa batzuk soziolinguistikan bururatzen ditu CIRB-en (Centre International de Recherche sur le Bilinguisme), William F. Mackey, Jean-Denis Gendron edo Richard Bourhis hizkuntzalariekin ezagutzak eginez geroz.

**Erramun Bachoc oharzen
da Kanadako eta
Frantziako edo
Espainiako ikasturteak
elkarrekin uztartzen ahal
direla eta horrengatik
beretzat eta bere
famiarentzat aurkitzen
dute Lapurdiko
Milafranga herrian
Mendigaraia deitzen
duten egoitza nagusia.**

Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Kultur Erakundea

Frantziako 33. biztanleriaren erroldako hizkuntzei buruzko 4 galdera, lehen aldikoz (1999). 1995ean, Ustaritzen izan ziren Frantziako eskualde hizkuntzen arteko topaketetan, Kanadan edo Belgikan egiten zena-
ren adibidea hartuz, frantses zentsu erroldetan eskualde hizkuntzei buruz galdera batzuk egitea aipatu izan zen. Horren ondotik, Pariseko INSEE-k (zentsu eta estatistika institutua) onartu zuen Euskal Kultur Erakundea hizkuntza hoi ordezkarria izan zedin. Erramunek galderen idazlanean parte hartu zuen.

Euskaldun orok altxa burua Enquêtes sociolinguistiques en Garazi 1982, 2002, Michel Aurnague eta Maia Duguine.

1982an Jakes Aurnague euskaltzaleak Iparraldeko lehen inkesta soziolinguistiketarik bat burutu zuen, Garazi eskualdeko kolegioetan. Erramunek ohar batzuk egion zizkion orduan. Eta 2002an Michel Aurnaguek, Jakesen semeak, eta Maia Duguinek ber baldintzekiko inkesta egin zuten Erramunen laguntzarekin, datu konparagarriak eskuratzeko.

Euskal nortasuna eta Kultura XXI. mendearen hasieran, 2004 — 2005. 2006an Eusko Ikaskuntzak inkesta horren emaitzak eta hoiei buruzko hausnarketa txosten batzuk argitaratu ditu.

Erramun, egile eta arduradun taldekoa zen Pantxo Etxegoin, Terexa Lekunberri, Iñaki Martinez de Luna, Larraitz Mendizabal, Igor Ahe-
do, Xabier Itzaina eta Roldan Jimenorekin.

Bibliografia: testu hautatu batzuk

1976, *La pensée politique d'Emmanuel Mounier. La communauté internationale*, Sainte-Foy, Université Laval. (Filosofia doktorego tesia).

1982, Hizkuntza geografia artikulua, in U.Z.E.I. *Hizkuntzalaritza hiztegia*, Donostia, Elkar.

1987, Existenzialismoak; Emmanuel Mounier artikulua, in U.Z.E.I. *Filosofia hiztegia*, Donostia, Elkar.

1987, (1996), *Euskaraz bizi* euskara ikasteko ikus-entzunezko metodoa (1. edizioa), 6 liburuxka (4 salgai), 6 bideokasete.

1988, E. Bachoc, A. Duhalde, M. Itçaina, A. Luberriaga, *Euskal mintzabideak, guide de conversation français-basque*, Euskaltzaleen Biltzarra, Baiona, Elkar.

1997, Soziolinguistikazko inkestaren irakaspen batzuk. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 22/23, Donostia, Euskal Kulturaren Batzarrea: 15-27.

2000, *L'enseignement de la langue basque*, in C. Clairis, D. Coastaouec, J.-B. Coyos, *Langues et cultures régionales de France — État des lieux, enseignement, politiques*, Paris, Sorbonnen, 1999 / 06 / 11-12, Paris, L'Harmattan : 229-238.

2001, M.-J. Azurmendi, E. Bachoc, F. Zabaleta. Reversing language shift: The case of Basque, in Joshua A. Fishman, *Can threatened languages be saved? Reversing language shift, revisited: A 21st century perspective*, Clevedon, Multilingual Matters: 234-259.

2005, Inkesta baten inguruko solasak, in Michel Aurnague eta Maia Duguine, *Euskaldun orok altxa burua Enquêtes sociolinguistiques en Garazi 1982, 2002*, Donostia, Eusko Ikaskuntza: 23-30.

2006, *Euskal nortasuna eta kultura, XXI. mendearen hasieran*, Baxok, E. eta beste. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

2006, Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan, *Euskera*, 2006, 2, 51. liburukia, Euskaltzaindiaren XI. Jagon Jardunaldiak, 2006-11-24, Bilbo: 919-968. www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1166006420.

2007, Euskara eta euskal kultura 2020 Ipar Euskal Herriko gogoetak, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 65, Andoain, Soziolinguistika Klusterra : 27-38.

2007, Euskaltzaindiaren eragina Euskararen Erakunde Publikoaren hizkuntza politika proiektuan, *Euskera*, 2007, 52. liburukia, Bilbo: 403-414.

Artikulu zientifiko aldizkari horietan: *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, *Euskera*, *International Journal of the Sociology of Language*, *Jakin*, *Jazten*, ...

Elkarrizketak

1994 *Argia*, 1994/04/03 :

www.argia.com/mendea/hemero/94baxok.htm.

1995 *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 16. zenb., 1995eko urria: 89-106, www.sociolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/16/BaxokElk.pdf.

Prentsan: *Argia*, *Enbata*, *Herria*, *Le journal du Pays Basque*, ... eta hainbat parte-hartze biltzar eta jardunalditan.

(1)^o Nantes frantsesez.

(2)^o Rennes frantsesez.

(3)^o 1979, Montréal, ed. Fides, col. Héritage et Projet.

(4)^o 1976, Sainte-Foy, Université Laval.

(5)^o *Noned*: Nantes frantsesez.

(6)^o "Le bal a perdu les Landes, le bal perdra le Pays Basque".

(7)^o "De quoi amuser les touristes" dit (Gaétan de) Bernoville.

(8)^o "Le Pays Basque est une grande famille, mais une famille qui meurt".

(9)^o E. Baxokek azpimarratua.

(10)^o Bi lerroalde horiek Erramunek frantsesez idatzi zituen: "D'après moi seul "l'Idéal Rou-tier" peut donner aux jeunes Basques la force de porter fièrement leur nom. Je sais que vous appréciez cette formation fondée sur la religion, le sens de l'honneur et... ce n'est pas un mal... l'attrait de l'aventure. C'est avec intérêt qu'aux grandes vacances dernières, j'ai suivi votre camp volant à travers

Euskal Herriko Unibertsitateak atea irekitzen dizkio Erramun Bachoc-i. Hasteko 1979-1982an, Deusturi lotua den Donostiako EUTGen (Estudios Universitarios y Técnicos de Guipuzcoan) Geolinguistikako irakasgai bat badu.

**Kanadan bildu duen
hizkuntza legegintzari
buruzko esperentzia
baliatzen ahalko du,
botere publikoekin
negoziatzeko Baionan,
Pauen, Bordelen edo
Parisen berdin.**

nos belles montagnes. Pour ma part j'ai goûté à la route. J'ai même dirigé un camp liturgique, 2 camps volants. En outre, cette route Saint-Jean Pied de Port – Lourdes que nous avons faite à 7 Basques, sans tente, sans uniforme, sans sac tyrolien, sans matériel, avec un maigre pécule difficilement amassé “.

(11)⁵ “Idéal Routier”.

ERRAMUN BAXOX 1943. URTEAN PIARRES LAFITTERI IDATZIRIKO GUTUNA

Hona non J.B. Coyos adiskideak prestatu dokumentazioaren ondotik nihonek, Piarres Charritton-ek kurrutzen ari naizelarik Piarres Andiaza-bal-ek gaur arte zaindu duen Piarres Lafitte gure irakasle euskaltzain jakintsu zenaren gutundegia ustegabetarik eskuratzen dutan 18 urteko ikasle mutil gazte batek Nantes-etik bidali zion eskutitza, Erramun Bachoc suhuskundarraren gutuna hain zuzen. Erramunek ez zuen segur ahantzia eta berak salatu digu Piarres Lafitte zenak argi eta garbi ihardetsi zioela omen hartua zuen bidea zuzena zela, eta eraman zezala antzina!

Gure esker onekin, hona lekukotasuna

Piarres Charritton eta Battittu Coyos.

•

Pont-Rousseau, ekainean, 1946

Jauna,

Azkenean, etsi etsia hasten naiz zuri bi lerroren izkiriatzeko.

Harritia zaude nork izkiriatzen dautzun. Hemezortzi urteko euskaldun gazte bat naiz Naoned-eko¹⁶ inguru hortan galdua. Misionestgai bat naiz. Erramun Suhuskune Etxemendigaraikoa (frantsesez Raymond Bachoc). Lehen *baccalauréat* badut, bigarrena esperantza. Balentriarik gabe ikasgelan ardura lehena, pilotaria, muslaria eta dantzaria.

Joan den urtean leitu nuen zuk euskaldun estudianteei igortzen zinuen deia, *Herria*-n. Dei hori arrapostu emaiterat heldu nauzu.

Ikusten dut zertan giren Euskal Herrian. Fedea ahultzen ari da. Misionest euskaldun batek erraiten zautan: “Dantza arruntak Landak galdu ditu, dantza arruntak Euskal Herria galduko du”¹⁷. Bazterretik komunistak ehausika. Noiz artio errespetuan atxiko ditugu?

Euskara ere gibelerat ari da. Haurrek eskolan frantsesa baizik ez dute ikasten eta ardura katixima ere frantsesez. Neskak berriz ederrez mintzo dira frantsesez.

Gure dantza, kantu eta ohitura ederretarik hogeita-hamar urteren buruan zer geldituko da? “Turisten jostarazteko doia”, dio Bernoville-k¹⁸.

Gizontasuna ere galtzen ari da. Oraiko gazteek sosez eta dantza arruntez baizik ez dira mintzo. Lhandek ez ote du egia erran: “Euskal Herria familia handi bat da, baina hiltzen ari den familia”¹⁹.

Ez, Euskal Herriak ez du hil behar.

Egia erran nondik heldu da makurra? Euskal Herria den lekuan bada ez da fedearen, ez euskararen ez eta gure ohituren falta. Euskaldunen falta da. Euskaldunak ahalge dira beren izenaren goraki ekartzeko. Sobera euskaldun bada, beren izena merezi ez dutenak. Zertako beraz Euskal Herria erortzen ari da? Ez baita aski egiazko euskaldunik. Ez baita aski egiazko aitzindaririk²⁰.

Eta egiazko euskaldunak, egiazko aitzindariak non atzemanen ditu Euskal Herriak? Gu, gazteen artean eta bereziki estudiante gazteen artean.

Non atzemanen dute gazteek Euskal Herriaren altxatzeko eta zaintzeko behar duten indarra?

(Barka ezadazu baina erdi euskaraz baino, nahiago dut arrunt frantsesez esplikatu).

Ene ustez, "Bidearen deiak" Euskaldun gazteei eman lezake beren izena goraki eramateko indarra. Badakit gogo onez ikusten duzula formakuntza hau, erlijioean, ohore sentimenduan, eta ... ez baita gaizki ... abentura nahikarian oinarritua dena. Interes handirekin iragan udako oporretan segitu dut zuk antolatu zinuena kanpaldi ibiltaria gure mendi ederretan zehar.

Ene aldetik bidea dastatu dut. Gainera beila kanpaldi bat kudeatu dut eta bi kanpaldi ibiltari. Bestalde, Donibane Garazitik Lurdera egin genuen ibilaldia, zazpi euskaldunek, oihal etxerik gabe, jantzi berezirik gabe, bizkarreko zakurik gabe, kanpaldi tresnarik gabe, zailtasunez bildua genuen diru pixka batekin²¹.

Baina nola adiaraz euskaldun gazteei "Bidearen" edo "Mendiaren" dei hori?²²

Nola? Piztaraziz batasun, mugimendu bat, "Scout"-en molde berean, baina errotik euskalduna eta ez Inglaterratik ekarria.

Zertako?

Lehenik gazteria errotik euskalduna bilakarazteko.

Bigarrenetik erlijioea, euskara eta ohitura xaharren begiratzeko eta behar bada berritzeko...

Hirugarrenetik euskaldun espainolen eta euskaldun frantsesen elkarretartzeko orain den baino hobeki.

Nola has?

Arbola azkarrak, erro azkarrak. Beraz bospasei egiazko euskaldun gazte elkarretaratu behar ginuke. Zuk ezagutzen ahal dituzu gazte beldurrik gabeko zenbait.

Elkarrekin zer egin gogo dugun ikusiko dugu. Batasun delakoa moldatu dugu. Ikasiko dugu aitzindariak egiazkoa. Gero bakoitzak beste bospaseiekin, beste andana batzu moldatuko ditugu.

Gero?

Lehenik Frantzian behar du gure batasunak abiatu. Aski azkar izan girelarik Espainiarat behar dugu ideia pasarazi; urte pare baten buru-

**EKE-ko lehendakaria
behin Ramuntxo
Camblong baldin bada
ere, horren ondotik
1995ean eta, hamar urte
luzez Erramun Bachoc-ek
izanen du Uztaritzeko
etxearen ardura, nahiz
2005. urtetik hona Mikel
Erramouspé-ri utzi dion
erakundearen gidaritzia.**

***Euskal Soziolinguistika
Institutuaren sortzerako
hausnarketetan parte
hartzen du Erramun
Bachoc-ek Quebeceko
(Centre international de
recherche en aménagement
linguistique), CIRAL
institutua adibidetzat
hartuz (2000/08/15).
Hausnarketan aurkezpen
orokorra eginen du. Eta
SEI hori gaurko
Soziolinguistika
Klusterre bilakatu da.***

ko agian. Jainkoak nahi badu zenbait urteren buruan ikusiko ditugu zenbait mila “Euskaltzaindari”, 7 herrialdetakoak, bandera beraren azpian gogo berarekin. Euskal Herriaren begiratzen, errotik euskaldun izanez...

Horra beraz, Jauna, laburzki sobera laburzki nik uste, euskaldun estudiante baten ametsa. Zer balio du amets horrek? Zuharek ikus eza zu. Badakit hamazortzi urte amets ederren adina dela. Baina obrarik ederrak amets batetarik hasten dira.

Ikusten dut holako agiantza ez dela bere baitarik eginen. Baina euskaldun gazteak zeren latsa dira? ...

Gaztexegi naiz eta kasik kexu naiz ez dudalakotz hiru edo lau urte gehiago. Baina ernatu behar dugu. Fiteago has eta lan gutiago ukanen dugu.

Frantzian gazten batasun bat gazteek behar dute egin. Eta zuk gidatuko gaituzu: Euskal Herria ezagutzen duzu, guk baino hobeki.

Honetan gelditzen naiz: ene pentsaketak dakizun bezala ez dira honetan gelditu. Baina ez dut gehiago ametsik egin nahi jakin gabe ideia horrek zer balio duen.

Balio bazauzu, izkiria ezadazu zer diozun gauza hortaz. Euskaraz izkiriatur nik baizik ez dut letra leituko. Zure erranari sumetituko naiz.

Baina gora “Euskal Herria”. ■